

GAITZERDI

Eguneroko bizitzan estropezu egindako burutazioak

[Hasiera](#) » [Feminismoa](#) » Emakumeek prostata dugu eta eiakulatzen dugu

Mai13 0



Emakumeek prostata dugu eta eiakulatzen dugu

Atalak: [Feminismoa](#)



Diana J. Torres Bilboko aurkezpenean.

Diana J. Torres (Madrid, 1981) da *Coño potens. Manual sobre su poder, su próstata y sus fluidos* (Alu ahaltua. Bere botere, bere prostata eta bere isurkari buruzko eskuliburu) liburuaren egilea. [MagnaFranse](#)-renak dira ilustrazioak eta Txalapartak argitaratu du ([hemen Gasteizko aurkezpenaren bideoa](#)). Bertan, zortzi urteko ikerketaren ostean, “Porno-terrorista”k emakumeen prostataz eta bere isurtzeko gaitasunaz dihardu. Itziar Abadek [Pikara Magazinerako elkarrizketatu](#) du eta hemen euskarara ekarri dugu.

G Puntuaren ordeztu prostata hitza erabiltzearen aldekoa zara.

Antzina, semena generorik gabeko likido bat zenean, hori zen erabiltzen zen hitza eta ebatsi egin ziguten; berreskuratzea aldarrikatzen dut. Prostata hitza grekozko parastátês-etik dator, eta “laguntzen duena” esan nahi du, ez besterik. Baita ere gustatzen zait horrela deitzea binarismoaren aurka altxatzeko. Generoak kontu biologikotan oinarritzen direla saldu digute. Aldiz, gizon baten eta emakume baten gorputzak irekitzen badituzu, ohartzen zara ezberdintasunak oso gutxi direna. Biek dute prostata eta praktikoki berberak dira. Gurea zerbait txikiagoa izan ohi da, testosterona mailen arabera. Patriarkatuaren dominazioari eusteko arrazoiak erori egiten dira. Ez dago ezer queer-agorik gorputzen errealitatea baino.

Zergatik ez deitu G Puntua, ezagunena den moduan?

Hitz hori 80ko hamarkadan sortu zen, Amerikako Estatu Batuetan. Emakume ez-zuzenen sendabide moduan aurkeztu zen, horrela azkenean baginako orgasmo bat izan ahalko zuten, plazer egokia alegia. Horrela, emakumeen sexualitatearen klitoriak duen protagonismoa alboratu zuen, eta feministen bi hamarkada zeramatzen klitoriaren protagonismoa aldarrikatzen. G Puntuaz diharduen lehen liburuak, “G Puntua eta giza sexualitateari buruzko beste aurkikuntza berri batzuek”, arrazoiak ematen zion falokraziari. Herralde hartan sexualitateaz ziharduen liburu salduena izan zen; misterioen erantzunak saltzea gehiago nahastuz, hori kapitalismoaren dinamiketako bat da. Liburu zentzudunagoa izango zatekeen, kontatu balu 1950ean Gräfenberg ginekologo alemaniarrak ezin izan zuena: bere idatzietan, esaten zuen emakumeek isuritako likidoak ez duela zerikusirik gurearekin eta prostatak ehun “homologo” edo “analogoak” dituela gizon eta emakumeetan. Gainera ziurtatzen zuen bi sexueta, bere kokapen, neurri eta dimentsio eta gaixotasunak ia berak direla.

Beste kezarik?

Baita ere hozkia ematen dit bere inguruko enigmak, Bermudako Hirukia bailitzan, eta eufemismoak. G Puntua deritzo, Gräfenberg jaunaren ohorez. Pentsatu izango zuten, metafora bat erabili ezean, emakumeek ez genuela ulertuko zer zen. Nola ez garen batere teknikoak... G Puntua ez erabiltzeko beste arrazoi bat da gure aluaren kolonizazioa. Gizonezkoen abizenez kargatuta daramagu: Falopio, Skene, Bartolino, Gräfenberg... horregatik guztiagatik, ezin dut eraman feministek hala deitzea!

Esan izan duzunaren arabera, Antzinaroan emakumeen prostata errekonozitua zegoen. Nork erazi zigun ideologikoki?

Patriarkatuak eta katolikotasunak, gure testuinguruan. Katolikotasunari ez zitzaizkion komeni emakume urtarrak, boterea zutelako. Plazera pertsegitzen hasi zirenean, gure gorputzetik hasi ziren. Likido bihurtzea oso lotua dago baita ere pentsamenduaren malgutasunarekin, kategoriak ezegonkorak diren ideiarekin, eta askoz dibertigarriagoak direla zurrin edo lehor izatea baino. Kapitalismoa ere arduratu zen gu lehorteaz. Pertsona talde bat saiatzen denean soilik zoriontsu izaten, kapitalismo osoa eraisten da, zeren, nor izango da zoriontsu egunean hamar ordu lan egin, urtean 15 egun opor eduki eta hipoteka bat ordainduz? kultura honetan ez digute burmuina bakarrik lehortu, gorputz osoa baizik, eta alua bereziki.

Medikuntzak betidanik emandako tratu txarren aurrean mendekua eskatzen duzu. Nola?

Lehenengo, galduriko denbora berreskuratzu eta gure prostata berriz ezagutu. Nola? Ongi bero zaudenean, larru-jotzearen erdian, gelditu, bizkarra hormaren kontra duzula makurtu, bi behatzak sartu eta estutu pubisaren kontra. Hor erraboi txo baten moduko gauza bat aurkituko duzu, alboetara joaten dena. Hori da zure prostata. Goizetan kasu egiozu: “Kaixo, badakit hor zaudela, bazarela”. Gure buruko mapan birkokatu behar duzu. Beste mendekua bat da hainbeste denboran isildutako jakintza zabaltzea. Proposatzen dut sexuaz eta gorputzaz hitz egitea maite ditugun eta maite gaituzten pertsonekin, sarri huskeriez mintzo baikara. Azkenik, zientziaz ez fio izateaz proposatzen dut, batez ere minik ez badugu, eta norberak bere gorputza bere kasa ezagutzea.

Baduzu trukurik?

Erremolaxarekin jakin dezakegu isuri duguna ez dela gernua. Erremolaxak gernua tindatzen du, baina ez gorputzeko beste likidorik. Bi erremolaxa gordin jaten badituzu, olio txorrotaz, erabat more egingo duzu pixa, baina ikusiko duzu ejakulatutako likidoa ez dagoela tindatuta. Barrura ejakulatu duzuna bazara ere froga egin dezakezu. Jaso larrua jo edo masturbatu osteko gernua eta ikusiko duzu ez duela kolorerik. Hamar minuturen ostean agertuko da more kolorea.

Zure vendetta-k bere horretan ahalduntzea eta autodefentsa feminista dira.

Erremintak dira geu izan gaitzen gure gorputzen jabe, baina baita ere gorputz hauek jasaten duten indarkeria ginekologikoa garaitzeko. Indarkeria delako emakume gazte batek, gerneruari eusteko inongo arazorik ez duenak, ginekologoari bere “pixa-erreak” azaldu, eta konpontzeko, ebakuntza-gelara eraman eta prostata erazteaz; indarkeria direlako emakumeek pilatzen dituzten traumak euren bikotekideek uzten dutenean isurtzeagatik eta indarkeria direlako gure prostaten ikusezintasunak eragiten dituzten osasun arazoak; indarkeria delako Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiak prostata definitzeko modua [ugaztun harren organoa dela dio honek].

Zer esango zenieke euren ejakulazioak erru, beldur edo lotsaz bizi dituzten emakumeei?

Alda dezatela maitalez, ez daitezela inola ere medikuarengana joan, gertukoengana jotzeko eta feminismo prosex-a ezagutzeko. Gainera, egin ditzatela azaldutako esperimenduak, oso beharrezkoak direlako gorputzari bere nortasun ejakulatuzailea aitortzeko eta buruaren eta prostataren arteko lotura berreskuratzeko.

Nolakoak dira emakumeen ejakulazioari buruz ematen dituzun tailerrak?

Lehenik dakidan guztia kontatzen dut motzean, prostataren irudiak erakutsiz, ikusteko non dauden euretatik ejakulatu dugun zuloak, eta frogatuz nola zanpatzen duen zientziak gure gorputza; esaterako, erakusten dut anatomia irudi bat zeinetan juxtu falta diren patriarkatuarentzako sorginkeriak diren bi organoak: klitoria eta prostata. Ondoren dator tailerretako zati interesgarriena: galderak eta jakintzaren trukea. Alde praktikoa oso gutzitan egin dut.

Zure performanceak ikusita, praktika irudikatzen nuen.

Bizitza ez da eszenarioa, eszenarioak asko ahalduntzen du. Granadan tailer praktikoa oso polita egin genuen. Latex eskularruak, toallak eta lubrifikaizalea ekartzeko eskatu nuen. Arlo teorikoaren ondoren 15 emakume inguru geratu ginen larrua jotzen kafetegi bateko sotoan (tailer praktikoa larrua jotzen jartzea dira). Esan nien prostata bilatu eta kitzikatze likido pixka bat atera zedin, eta lortzen ez bazuten lagunduko niela nik. Denak isuri ziren. Batzuek bazekiten nola egin, beste batzuek elkarri lagundu zioten lortzeko. Tailer praktikorik onena Nantesko emakume okupen etxe batean izan zen. 30 emakume zeuden eta entsalada ontzi erraldoi bat bete zuten isuriek. Nik tailerretik alde egin nuen, ezin nuen egoera horrekin!

Ezezagunekin larrua jotzea ez balitz hain konplikatu gizarte honetan, tailer praktikoa askoz errazago irtengo liriteke. Granadako tailer zoragarri hartan pare bat neska euren mutil lagunekin zeuden, erabat izututa alde egin nahi zutenak. Gero emozionatzen hasi ziren eta jokoan sartzea erabaki zuten. Haietako batek bukatu zuen bere txurriak alutik botatuko haren katilukada bat edaten.

Beraz tailerrak mistoak dira.

Kontu honek ere zailtzen du antolaketa, batez ere feministekin. Mistoak badira zaindu behar da ez dadin babosorik sartu, nahiz marikita eta inuzente itxura eduki, ondoren denei esku sartzan saiatuko dena. Nahiz eta hori neska batek ere egin dezakeen...

Errietarik egin dizute koltxoak bustitzeagatik?

Egun batean oso anarkopunka zen tipo baten etxetik korrika irten behar izan nuen. Horman Che edo Bakuninen afixa zuen, ez dut oroitzen ongi zein, eta viscolatex koltxoia, hileka ordaintzen diren horietakoa. Idiskoa oso erasokorra jarri zen, ohean pixa egin niola salatu ninduen, arropa kanpora bota eta esan zidan: “Hoa hemendik, urdea”. Beste batean neska batekin gertatu zitzaidan. Txorrita aurpegira erori zitzaion eta paniko krisian sartu zen, HIESa erantsi niola uste izan zuelako. Pija hutsa.

Esperientzia itsusi pare bat baino ez. Zortea izan duzu.

Inorekin oheratu baino lehen ongi botatzen diot begia eta aztertzen dut bere ingurua, mugitzeko modua, hitz egitekoa. Badirudi “devenir perra”, porno-terrorismo eta pospornoarekin edonorekin oheratzen garena, baina bai zera, nahiko selektiboak gara. Ez dut batere gogorik normatiboak ez diren praktikak ditudalako esperientzia txarrik izateko. Niretzat prosex izatea ez da mugitzen den ororekin larrua jotzea, baizik eta presente izatea oheratzen garenen zainketak, gertutasun ideologiko, politiko, gorputzeko eta emozionalak. Prosexak direla esango dute futbolera doazen matxirulo denek, egunero emakume batekin larrua jotzearekin amesten dutelako, baina horrek ez du zerikusirik nik ematen diodan adiera feministarekin.

Nola egin duzu *Coño potens*? Liburutegian sartuta ez zaitut irudikatzen...

Ez, ez; software librearen eta *infranetaren* zalea naiz, bertan aurkitzen duzu nahi duzun oro, giltzurrun batetik hasita artikulu zientifikoetara. Liburu hau batez ere internetez eginiko ikerketa baten emaitza da, eta orain arte eman ditudan 200dik gora tailerretan agertutako duda eta informazioarena. Sayak Valenciak, nire lagun akademiko bakarrak, [webgune zoragarria](#) ezagutarazi zidan, artikuluak doan jaisteko.

Hemendik aurrera zer?

Ingelesa taxuz jakin ezean, nire liburua ez zatekeen posible izango. Horregatik, artikuluak itzultza jarriko naiz eta pixkanaka [yeswecum.org](#) -era igotzen, jakintza kolektiboa partekatzeko sortu dudana webgunera. Liburu hau idatzi dut baita ere adar ezberdinetako pertsonen kolaborazioa bilatu eta horrela jakintza sarea sortzeko. Liburua Espainia, Italia eta Mexikoko biretan aurkeztu ondoren, Cancunera joango naiz oportetara testuak itzultza, amaka batean mojitoarekin etzatera. Merezia dut (kar-kar-kar).

Prostata

Skene Glandula eta ondoren G Puntua izenez ezagutu da, emakumeen glandula parauretralak aztertu zituzten bi medikuren omenez. Emakumeen prostatak gizonezkoaren antzeko ezaugarriak ditu. Emakumeetan baginarekiko modu paraleloan doa eta uretran txertatua dago. Horregatik, kitzikatzean hazi egiten denean, pixa egiteko gogoaren sentsazioak sortzen ditu. Historikoki badenik ukatu izanaren ondorioz, uste izaten da eiakulatutakoan emakumeek jariatzen duten likidoa pixa dela. Kanporantz eiakulatzen duten eta putzu handi xamarrak sortzen dituzten emakumeak baztertu ohi dituzte euren sexu bikoteek. Ondorioz, azkenerako lotsa eta errua sentitzen dute.

Prostataren neurria bi eta bost zentimetro artekoa izan ohi da lasai dagoenean (ez da inondik ere G 'puntua') eta beteta dagoenean bere neurria hirukoiztu ere egin daiteke. Kitzikatzean sortu eta gorde egiten du likidoa, plazer handiko uneetan edo orgasmoan askatzen duena. Emakume denek eiakulatzen dute. Edo kanporantz, horretarakoxe diren zuloen bidez, edo maskurirantz. Kasu horretan, eiakulazio likidoa genuarekin batera kanporatzen da.

28

25

Izan ARGIAko bazkide: [astekariko harpidedun](#) edo [argia.eusen laguntzaile](#)

Iruzkina idatzi

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak * markatuta daude

Izena *

E-posta *

Webgunea

Iruzkin

Ondorengo XHTML etiketa eta atributuak erabil ditzakezu: ` <abbr title=""> <acronym title=""> <blockquote cite=""> <code> <del datettime=""> <i> <q cite=""> <s> <strike> `

Bidali

Estitxu Eizagirre

Hernanin hazi eta Larraulen bizi den soziedadeko bertsolaria. Feminismoarekin, heziketarekin, lurrarekin, jendeekin sentibera, bizhitsari adibide positiboak eta zalantza-dantzak lapurtzen saiatzen naiz.

Bilatu:

@eeizagirre Twitterren